

# Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko urriaren 7a / IV. urtea / 147. zenbakia

## Hegazti gorenak

Uztailean heltzen dira, beroak dagoeneko gogor jotzen duenean. Haiek, ordea, negua eta hotza bu-ruan. Azarora arte zeharkatuko dituzte milaka ki-lometro, iparraldeko lurralde hotzetatik Afrika edo Iberiar Penintsularen epeltasunaren eske. He-gazti migratzaileak dira, eta Nafarroako kaskoak dute pasabide naturala. Ehizak, baina, franko izu-tu ditu, eta altuago eta neketsuago egin behar dute orain bidaia. Ekologistek, bitartean, kasko haue-tara hurbiltzen dira urtero, haien nondik norakoa aztertzeko, aldakuntzak ikertzeko. Gizakiak he-gaztiei, hegazti gorenei, begira.



Ugatza talde ekologistako kideak, Linduxeko kaskoan.

ALBERTO BERGERANDI

## Metropoli forala

FELIPE RIUS



### Jubilatuen paradisia

**F**MI delakoa arrazoia ematen ari zaio Johnny Thundersi: azkenean hobe izanen dugu gaztetan hiltzea eta zerraldoan sartuta gorpu eder bat erakustea, zahartzarora iritsiz gero miseria gorrian bizi beharko baitugu, bakarrik pentsio fondo pribatuetan inbertitu dutenak

etzan ahal izanen dira Benidormeko hondartzetan gainerakook eskean gabiltzan bitartean. Eta arazoa ez da hor bukatzen, langabetuok ere gaizki ibiliko baikara gure babarrunak lortzeko, gaur egun milioika hiritar dauden moduan bestalde. Apokalipsia omen dator, beltzak, langabetuak, jubilatuek, ezkondu gabeko alargunak, behin behineko kontratu berriak eta soldata eskasak dituzten langileak, babesik gabeko gaisoak, aurreztutako diru guztia gastatu ondoren etxerik gabe geratu diren kooperatibista ohiak, edateko arrazoiak soberan dituzten alkoholikoak, umezur-tzak, bisadorik gabeko etorkinak eta orokorrean 'self made man' bat izateko ausardiarik izan ez duten guztiak pilatuko dira kaleetan, labana eskuan daramate-la, Banko Mundialaren ejekuti-

boen bila, baina ez dute bakar bat ere aurkituko. Korbatadunak kristal blindaturen baten atzetik begiratuko du paisaje urbano eta sotanotik gin-tonic bat igo diezaioten eskatuko du interfonotik. Bere ordenadorean ekonomia primeran doala hamaikagarrenez konprobatu ondoren, programa aldatu eta Tetrisean arituko da estresa kentzearen. Gestio pare bat telefonoz New Yorkeko broker lagun batekin eta etxera abiatuko da terrazan duen heli-

kopteroaz. Ordurako behekoak haien artean borrokan ariko dira eta ejekutiboa segurtasun faltaz kejutuko da, baina badaki hildakoak ez direla asko izaten, kontrol demografikorako beharrezkoa dena, besterik ez. Laster piztuko dira kaleetan telebista pantaila erraldoiak eta 'Blade Runner-eko' txinatarrak agertu beharrean Isabel Gemio azalduko da;

orduan munduko pariak lurtean eseriko dira gorpuen artean tokia eginez eta beren problemak ahaztuko dituzte saio eta tartekatzen dituzten pentsio fondo pribatuen iragarkiak ikusten dituzten bitartean: 'zure etorkizuna inporta zaigulako, zoriontsua ikusi nahi zaitugulako, etor zaituzte gurekin jubilatzearen paradisa'.



## GUERE AUKERAK

### ERAKUSKETAK

**Birziklatzearen artea** izenburuko erakusketa zabalik dago Iruñean, Gotorlekuko aretoan. Dora Salazar, A. de Orella, Jose Luis Otxoa, Teresa Izu, Pello Iraizoz, Josu Goñi eta Arberen lanak ikus daitezke. Asteburu honetan goizeko 10etatik gaueko 9ak arte egonen da zabalik.

**'Bardeak**, basamortuaren arkeologia' izenburuko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan azaroaren 6a arte. Bertan, herrialdeko eremu honetan izandako aldaketak agertzen dira, bere ezaugarriak erakutsiz. Goiz eta arratsaldean joan daitezke astegunetan, igandean itxita baitago.

### ANTZERKIA

**'The dream of Marilyn'** izeneko obra taularatuko bihar, urriak 8, Melody Sisters taldeak Acedon. 'Udazkeneko bira' programaren barruan, arratsaldeko 8.30etan hasiko da, zinema parrokialean.

**'Non ote dago ortzadarra?'** izenburuko antzezlanaz plazartuko du igande honetan, urriak 9, Txirristra taldeak NARBARTEN. Herriko plazan izanen da, arratsaldeko 4etatik aurrera.

### IKASTAROAK

**Saloiko dantzak**, Eskulanak, Pintura eta Marraskia, Yoga, Masaia, Aerobic, Jostura, Argazkigintza, Antzerkia eta Auto-defensa ikastaroak antolatu ditu Iruñeko Alde Zaharreko Elkar-teak. Parte hartu nahi duenak Elkarteko egoitzara joan (Aldapa kalea, 5) edo 21 25 26 telefonora deitzea besterik ez du.

**Autoestima** eta Giza Harremanetarako Trebezia ikastaroak antolatu ditu Andrea Emakumeentzako Zerbitzuak. Goizez eta arratsaldean egiteko aukera dago eta urriaren 18an hasiko dira. Apuntatu nahi duenak Andreara joan (Navarrerria kalea 15) edo 22 77 14 telefonora deitu behar du.

### MUSIKA

**Sorotan Bele** musika taldearen kontzertua izanen da bihar larunbata, urriak 8, Donezteben. Goizaldeko ordubatean hasiko da, Bordatxo Dantzalekuan.

**'Los Dinosaurios'** taldeak kontzertua eskainiko du gaur, urriak 8, Zizur Nagusian. Udalak udazkenetarako antolatu duen ekitaldien barruan, 22.00etan hasiko da, Kultur Etxean.

## NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

### Txokarroarrak

● 'Franco hil eta geroko urte nahasietan, eskripulo, ahalke eta ideologiarik gabeko politikari andana batek diru publikoak lapurtzen jardun ohi zuen; dirugoseak bul-tzaturik, edozein banderapean aritzen ziren, handinahia eta zikoizkeria beste ezein interes gainean paratuz. eta etikaren

Gabriel Txokarro ari dela la-guntzak galtzen baita bere alderdi barruan ere, edo hori pentsa liteke behintzat bere parlamentari taldean izan diren eztabaidak ikusirik. Antza denez, Gabriel Txokarro ongi txokarraturik zegoela bagenekien arren, oraindik ere are eta txokarratuagorik dago. Bere

Bestetik, Nafarroa Kapitai-nak bidali du bere oinaztura txokarratzailea buruhandiaren txontxongilo belarridunaren aurka; honek badaki nor, noiz eta nola txokarratu, antza. Ricardo ez omen du nahi Txokarro, beste hainbat bai, ordea. Laister Alfredo Txokarro? Martxa honetan luze gabe



baloreak, hitzetik hortzera, diskurtsogai hartuz bere ekin-tza ohoregabeen estalgarri. Bere jokabidea azaleratzen joaten zen heinean, erreta gelditzen ziren, edo eta, orduko politikari trebe batek esan zuen hitzetan esateko, txokarraturik. Egun 'Txokarroarren garaiak' izenarekin ezagutzen dugu gure Historiaren pasarte ilun eta mixerable hura'.

Honelaxe hasiko da, 2.076. urtean, OHO-ko Historia liburu-ko kapitulu bat. Badirudi

alderdi barruko oposizioaren bozeramaileak esaten zuen bezala, beste hitzetan, noski, a zer nolako babalare aurpegia gelditu zaigun. Eta gero: hala ere, ezer egiten ez badugu, jendeak luze gabe uste izango du denok gaudela lokatz be-rean sartuta, eta hortik aurrera, berehala denok Txokarro. Eta gogoeta ez da harrizkekoa; ba-tek baino gehiagok galdetzen dio bere buruari honez gero Gabriel Txokarro abizen be-reko lehengusurik ote duen.

Txokarroarrek hartuko dute telefono zerrendaren erdia baino gehiago. Ez da txokarri-takoa.

Horrela, txokarrera giroan, ematen dugu urrats bat aurrera eta bi atzera, bat eskuinera eta hurrengoa, berriro, eskuinera, keinu eta zeinu ugarien bene-tako esanahia inoiz erabat atzeman gabe.

Eta egitan, apellidos, Txo-karro direnek barka bezate. Euskal lokuzio bat asmatzeak horrenbeste merezi du, ezta?

### ASTEKO PERTSONAIK



**Jaime Iribarren**  
Gazte Kontseiluko presidentea

Jaime Iribarren Nafarroako Gazte Kontseiluko presidenteari hamasei hilabeteko kartzela zigorra ezarri dio Espainiako Entzutegi Nazionalak sute delitoea egiteagatik. Fiskalak, epaiketean, hamaika urteko zigorra eskatu zuen bere kontra, terrorismo delitoea egin zuela esanez. Epaileak, ordea, Iribarren ez dela «talde armatua edo erakunde terrorista bateko kide» azaldu du. Une latzak pasatu behar izan ditu Berriozarko gazteak, behin atxilotu eta askatu ondoren, berriro atxilotu baitzuten, orain dela hiru urte gertatutakoa leporatuz. Torturak eta tratatu txarrak salatu zituen, eta psikikoki oso motel zegoen azken aldiz atxilotu aurretik. Orain, ziurrenik, urtea amaitu baino lehen itzuliko da, aipiriletik espetxean baitago.



**Juan Ramon Jimenez**  
Gobernuko lehendakariordea

Juan Ramon Jimenez Ekonomia eta Hazienda sailburua Gobernuko lehendakariordea da joan den astelehenean, Juan Cruz Alli lehendakariak horrela erabaki baitzuen. Beraz, bi lehendakariorde daude Gobernuan, Miguel Sanzek postuan segitzen baitu. Ustekabea izan zen Alliren erabaki hau, eta gehienek lehendakariak bere indar politikoa sendotzeko egin duela diote. Berak, ordea, arrazoi ekonomikoak planteatu zituen. Asteazkenean Jimenez karguaz jabetu zen, beharrezko artikulua beteko zituela zin egin eta gero. Bitxia da izendapena, Juan Ramon Jimenez UPNkoa ez den kontseilari bakarra dela kontuan hartuta. Gainera, ez dago hasieratik Alliren Gobernuan, Pomesen ordezkia betetzeko sartu zen eta.

### AHAZTU GABE!

### KULTUR ASTEA

**AEK Eguna** urriaren 16an ospatuko da Tafallan, baina aurretik koordinakundeak prestatu ditu ekitaldi ugari, Kultur Astearen barruan kokatuak. Astelehenean, urriak 10, 'Euskararen gorabeherak Tafallaldean' izenburuko mintzaldia eskainiko dute Patxi Salaberri, Jimeno Jurio eta Jose Mari Espazak, 20.00etan Kultur Etxean. Asteartean, berriz, musika emanaldia izanen da, Kojon Prieto y Los Huajolotes taldearekin, gaueko 23.00etatik aurrera. Kontzertua Guesera dantzalekuan izango da. In Fraganti antzerki taldeak 'Hala bazen ez bazan, sar dila...' izeneko obra taularatuko du ostegunean, hilak 13, Kultur Etxean, 20.00etatik aurrera. Ostiralerako kontzertu-kantaldia antolatu dute, Mikel Elizaga eta Iñaki Alfaro katautoreen partehartzearekin, arratsaldeko zortzietan hasita. Hau ere Kultur Etxean izango da, eta aurrekoa bezala, herriko Kultur Patronatoarekin batera antolatu dute. Larunbatean, 'titiritero tailerrak' izanen dira arratsaldean eta gauez, Egan taldearekin ber-bena Nafarroako Plazan.

### JENERO XUMEKOAK

III

Teodosio, begira. Itsa-so sakona uhin bortitzetan goratzen da, eta hodei iluna Aralar mendian gaindi igaran da. Ezustean, izuak erasotzen digu.

ELIAS SARASA - ERRO

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



# Erakusketa antolatu du Euskara Batzordeak

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Euskarari buruzko erakusketa zabalduko da gaur Etxarri-Aranatzko pilotalekuan, eta igandera arte izango da ikusgai, goizez eta arratsalde. Bertan, Sakanako herrietako errolda datuak, azterketa egin den herrietako euskararen kale erabilerak, eta hainbat bitxikeria izango dira ikusgai, eta azken urte hauetan Sakana osoan euskararen inguruan egin diren ekitaldien berri izango da erakustoki zenbaitetan. Erakusketa Etxarri-Aranatzko Euskara Batzordeak eta Etxarriko Udalak antolatu dute, eta Nafarroako Gobernuak eman du dirulaguntza. Honekin batera, mintzaldiak eta filmeak izango dira egitarauan.

Erakusketaren ordutegia arratsaldeko 3etatik 5ak arte izango da gaur, ikasleentzat, eta bihar eta etzi, larunbata eta igandea, goizez —11.30etatik 14.00etara— eta arratsalde —17.00etatik 20.00etara— izango da zabalik erakusketa jende guztia-  
rendako.

Hain zuzen ere, atzo izan zen lehen mintzaldia, arratsaldeko zortzietan Herriko Liburutegian, eta Iruñeko Erlantz Urtasunek emana. 'Euskara Nafarroan. Atzo eta gaur' hitzaldian Nafarroako Gobernuari aurkeztutako lanaren zehaztasunak eman zituen. Gaur izango da bigarren mintzaldia, arratsaldeko 7.30etan, Herriko Liburutegian



Erakusketan Sakanako herrietako datuak ikusi ahal izango dira.

hau ere, eta Koldo Zuazok eta Jose Mari Arakamak eskainiko dute. Hizlariak 'Euskararen historia' gaia jorratuko dute. Zuazo Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da.

Mintzaldiak ezezik, hiru pelikula ere ikusi ahal izango dira herriko pilotalekuan hiru egun hauetan. Gaur, 'David Copper-

field' abenturazko filmea izango da ikusgai, eta bihar, larunbata, urriak 8, eta arratsaldeko 5etan, 'Azken mohikanoa' pelikula emango dute. Igandean, ordu berean, 'Oz-eko azitia' pelikula zoragarria ikusi ahal izango da.

Etxarri-Aranatzko Euskara Batzordeak, Etxarriko Udalak, Euskara Zerbitzuak eta euskal-

gintzan diharduten herriko taldeen ordezkariak talde bat eratu dute, eta euskararekin lotutako ekitaldiak bultzatzea dute helburu. Urte osoan zehar, horrela, kanpainak antolatzen dituzte —euskalduntze-alfabetatze kanpainak, esate baterako—, eta duela gutxi martxan jarri zuten ludoteka euskaraz.

## Barañain

# Gaztetxean itxirik

IRUNEA

Barañaingo berrogeita hamar gazte bertako gaztetxean itxi ziren joan den igandean herriko lokalendako irtenbidea eskatzeko asmoz. Prentsaurreko batean azaldu zuten, bertan gelditzeko erabakia Udalak ezarri nahi zuen ikastaro baten ondorioz sortu zen, Enplegu Bulegokoa hain zuzen eta horrek gazteen protestak eragin zituen: «Barañainen badira lokal hobeak horrelakoak egiteko».

Gaur egungo gaztetxeak Udalak eman zien gazteei iaz, antolatu zen Gazteriaren Astea zelata. Ondoren, gazte guztiei irekita izatea erabaki zen, eta ordutik aurrera erabaki guztiak biltzarrean hartzen dira. Barañainen sei mila gazte inguru bizi dira, eta bertan kontzertuak, tailerrak, mendi irteerak, erakusketak eta bilerak egin dira, eta udako ikastaroetan berrehundik gora gaztek



Gaztetxean ikastaro franko burutu dira.

hartu zuten parte.

Horrela, lokal honetan hainbat talde bildu dira beren ekintzak burutzeko: Kikilu taldea, haurrendako aisialdia antolatzeko; Gazteriak taldea; Begira rock taldea; Bat talde antimilitarista, Iherbide antzerki taldea, eta abar.

Halaber, bertan egon dira Amnesty International, Anfas eta hainbat dantza talde. Lan horrek guztiak Udalaren onspena jasodu, Maria Angeles Aristu Gazteria zinegotziaren bidez, baina arazoa ikastaroa ezarri nahi izan dutenean sortu da.

## Arakil

# Hitzaldiak eta zinema Euskararen Asteburuan

IRUNEA

Euskararen Astea zabaldu zen atzo Arakilen, bertako Euskara Batzordeak antolatuta, Arakilgo Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin. Atzo, gaueko 9etan, Toponimiari buruzko hitzaldia izan zen Etxarrengo kontzejuan, gazteleraz, eta gaur ostirala, ordu berean eta Izurdiagako elkarteetan, 'Euskara Nafarroan, historia eta gaur egungo egoera' izeneko mintzaldia dago iragarrita. Hau ere gazteleraz izango da.

Bihar, larunbata, urriak 8, arratsaldeko 6etan, Kixka antzerki taldea ariko da Ihabarko kontzejuan, bere azken lana antzezten, eta igandean, urriak 9, eguerdiko 1etan, Txotxongilo taldeak eskainiko ditu bere abileziak Hiriberriko kontzejuan. Egitarau oparoa, beraz.



eta berriz hustu genituen, eta lapikoak elkar joka ahal izan genuen zaratarik handiena atera genuen.

Haatik, ez genuen sareak botatzeko paradarik izan. Taldeok bidean inolako harrapakinik topatu gabe egin genuen bat. «Tira, hau da hau zorte txarra», pentsatu nuen ene golkorako, «heldu den urterarte itxaron beharko dugu». Basaburuko herri horretako jaietara ailegatu ginenean, herriko mutikoteek marraskilo-pasare n nondik norakoak azaldu zizkiguten. Esan zigutenez, urtean behin Basaburuan milaka marraskilo elkartzen dira iparralderako bidean, uda Pirinioak harataro igarotzeko. Giputzek marraskiloekin zizekin egiten duten sarraski bera egin ez dezaten, bailarakoek ez diote horri publizitaterik ematen, baina gauza jakina da urtero kamioin bat istripua izaten duela marraskiloek errepidean utzitako arrastan irrist egin eta gero.

Oraindik ere ulertzen ez dudana zera da, gu herrira bueltan itzuli ginenean zer dela eta geratu ziren herriko guztiak basoan, lurrean etzanda, parrez lehertuta.

## Frantses Bidetik

Uda hasierako lehendabiziko gau epel horietako bat zen hura, eta ilbehean ginelarik, ilargirik ez zen kasik. Izarren dirdir indartsuak txunditurik gintuen. Hiriko gau argitsura ohitutako gu bezalako iruindar peto-peto batzuentzat, izarrez beteriko mendiko gau ilun hura sekulako ikuskizuna zen. Goiari so, mutikote musu gorriaren azalpenak itsu-itsuan segitzen genituen. Bere hatz mardula nora, gure begiak hara. Gurdia eta Iparrizarra erakutsi zizkigun, eta segituan guk zeruko Frantses Bidea segitu behar genuela azaldu zigun, bide hori bera segitzen bai omen zuten ehiziek.

Ehizaren kontrakoa izanda ere, urduritasunak erraiak nahasten zizkidan. Estreinaokoz gure arbasoak bezala, mendian nintzen, basoan, afaria ehizatzeke prest. Herriko mutikoteok taldeka banatu gintuzten. Basapiztiak inguratuko genituen, inondik ihes egiterik eduki ez zezaten. Musu gorriak irrintzia bota zuenean odola irekiten sentitu nuen ene zainetan barna. Ehizean hasteko ordua zen. Oihuka birrikak behin





Linduxen urtero biltzen dira Ugatza taldeko partaideak ikerketa egiteko.

ALBERTO BERGERANDI

**U**ztailetik azarora arte Nafarroako lepoak Europatik datozen hegazti migratzaileen pasabiderik garrantzitsuenak bilakatzen dira. Autopista hauek aztertzeke urtero igotzen dira ekologistak, tirokatzeko ehiztariak. Lindux eta Organbidexka dira ikerketa serioenak daukatena, eta azken honetan jaun eta jabe dira ekologistak.

## Hegaztien autopistak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Udako beroak hasi eta berehala, giroak negu eta udaberriko hotz eta haizeak ahaztu ditueanean, eguzkiak eta sapak giza-kiak eta animal oro zapaltzen dituztenean, orduantxe hasten dute hegazti migratzaileek lurralde urrunetik urteroko beren bidaia. Epeltasunaren bila, oraindik burua azaldu ere egin ez duen neguaren beldurrez, milioika alek zeharkatzen dituzte milaka kilometro uztaila eta azaroa bitarte. Biologo eta naturazale guztien-dako naturak urtero sortzen duen

misteriorik erakargarrienetakoa da, baita ezezagunenetakoa ere.

Ibilbide horren lekuko paregabea dugu Nafarroa, Pirinioetako alde honetatik igarotzen baitira Europako Mendebaldetik datozen hegazti gehienak. Hiru dira orokorrean Europako atea exodo erraldoi honetan: Bosforo Itsasoa, Ekialdeko Europako hegaztiendako; Italia eta Messinako Itsasarte erdialdekoendako, eta Pirinioak eta Iberiar penintsula mendebaldekoentzako. Mendikate horren altuera dela eta, mendebaldeko muturra nahiago dute hegaztiak, eta haietan,

altuera gutxiko lepoak. Horrela, Organbidexka —Nafarroa Beherea eta Zuberoaren arteko mugan—, Lindux —Ibañetako gainetik gertu— edo Etxalar dira toki aukeratuak.

Ez da makala pasabide hauen garrantzia, hogeit hamar mota baino gehiago ikus baitaitezke migrazio une gorenetan. Esate baterako, kalkulatu da hamar milioi usok egiten dutela bidaia, nahiz eta, jakina, denak toki beretik ez igaro. Atalai paregabe hauek 70eko hamarkadan erakarriz zuten ekologisten arreta, eta 1973an Linduxen hasi zen he-

gaztien lehen kontaketa saioa. Abuztua eta iraila bitarte egin ziren lehen saioak, baina esperientzia eta baliabide falta zirela tarteko, emaitzek egin behar zen lan eskergaz ohartarazteko baino ez zuten balio izan. Geroago helduko zen orduko talde ekologista nafarraren (ANAN) banaketa, metodologia eta administrazioarekiko loturei buruzko desadostasunek sortua, eta zailtasunak handitu ziren, horrelako lanak zerbait behar baldin badu, jendea eta baliabideak direlako. «Taldea banatu zenean» gogoratu du Alberto Bergerandi Ugatzako

partaideak, «guk gonbitea egin genien sortu ziren talde guztiei Linduxen paratua genuen atalaira joateko, baina askok, siglelari ematen dieten soberazko garrantziak jota edo, uko egin zioten proposamenari eta guk bakarrik aurrera egin genuen proiektuarekin».

Urte hauetan guztietan Ugatza taldearen ardura izan da pasabide eder horretatik igarotzen diren hegaztien zenbaketa lana. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik gabe, taldeko partaideen eta bazkideen sosekin ateratzen da aurrera proiektua, baina horrelako lana merezi, merezi duela azpimarratzen dute. «Hegazti hauen zenbaketa egiteko toki aproposena ez ezik, jendearen heziketa bultzatzeko ere paregabea da», azaldu du Bergerandi.

Linduxen nola edo hala datuak biltzen ziren bitartean, 1979an beste lepo bat aukeratu zuten ekologistek hegaztien mugimendu hauek aztertzeke. Organbidexkan, horrela, Frantziako hainbat ekologista eta biologo bildu ziren ordutik aurrera ikerketa lanetan, baina bertan, Linduxen ez bezala, gogor egin zieten aurre lur-eremu bera bereganatu nahi zuten ehiztariari. Gatazkak tarteko, Organbidexka lepo askatua izeneko taldeak hitzarmena izenpetu zuen Administrazioarekin, eta horren arabera, Organbidexka lepoaren jabe bilakatu zen, eta ehiza debekatu. Horren truke, Ingurugiro Ministerioak zuzenean 100.000 libera ordaintzen dio urtero Zuberoako Sindikatuari.

Borroka eta lorpen hau beti aipatu da eredu gisa, eta joan den astean iragarri zen talde berak Erroimendiko lepoa ere erositu zuela hegaztien ikerketarako. ANAT-LANE talde nafarraren ustetan, oso garrantzitsua da lepo aske bat izatea, eta urte hauetan guztietan antolatutako dituen hegazti migratzaileei buruzko jardunaldietan, Administrazioa, ehiztariak eta ekologisten arteko mahinguruetatik garbi atera da ondorio gisa kontserbaziorako urrats eragingarri bakarra lepo askea dela. «Hegazti asko babes-tu eta salbatzeaz gain» azaldu du



Sai zuria.



Zapelatz liztorjale.

ALBERTO BERGERANDI

ALBERTO BERGERANDI




Hegaztiei  begira

mintzoak

Mikel Baztan taldeko kideak, «ingurugiro hezkuntza eta kontzientzia lor daiteke: denena da eremu hori eta denen artean babestu behar da». Nafarroan horrelakorik lortzeko, baina, hemen eskasian dauden dirulaguntzak eta koordinazioa behar direla azpimarratzen dute talde ekologistakoek.

Denak ez datoz bat, alabaina. Ugatzakoak kritikoak dira ez esperientziarekin berarekin, baina bai egin den moduarekin. «Hasteko, denak kanpokoak dira» dio Bergerandik, «eta guri kontseiluak emateko heldu dira. Baina larriena da ehiztariekin izan duten buruz buruko gatazka. Guk, Linduxen hasi ginenean ehiztariarekin egin genuen lan, eta batzuk gure taldeko kideak egin ziren, eta beren lagunen artean kontzientziario pixka bat sartu zuten. Hauek ehiztarien kontra joan dira hasieratik, eta ondorioz sortu da inguruan 'Ehiza, Arrantza eta Ohiturak' alderdia, izugarritzko indarrarekin».

Bi talde nafarrak, baina, ados daude ehiztarien kontrako erabateko jarrera amaitu edo amaitutzat eman behar dela aitortzean. Mendia eta hegaztiak errebindikatzen dituzten bi giza-talde hauen arteko gatazka Administrazioak nahita bultzatuta ere izan dela azpimarratu dute, «horrela arazo larriagoak ekutatuzeko asmoz», eta ehizarako postuen kontra doaz kritika guztiak. «Usoak Pirinioetan sartzen direnetik» azaldu du David Guzman ANAT-LANEko kideak, «bateriek agurtzen dituzte nonnahi, eta gogoratu behar da duela hogeitaz urteko kopuru berbera harrapatzen dela, baina askoz ehiztari gehiago daudela». Bere ustetan, atarramenduri k ematen ez duten postuak kendu egin beharko liriteke, horrela populazioak hobera egingo bailuke. Bergerandik ere ehizak berak azken urteotan izan duen bilakaerari egotzi dio errua. «Lehen txabolak erabiltzen ziren ehizarako, eta usoak pausatzen ziren, basoetan jaten zuten eta egiten zen ehiza askoz ere zentzuzkoagoa zen. Orain, tiro hotzen artean igarotzen dira Pirinioetatik, eta ez dira pausatzen».



Hegaztien migrazio epeak zehazten dituen koadroa.

## Organbidexka, garrantzitsuena

A.B. / IRUNEA

Joan den astean iragarri zuten 'Organbidexka lepo askatua' taldekoek Erroimendiko lepoa bereganatuta zutela, zeuden ehiza postuen enkantean sartu ondoren. Heldu diren hiru urteetan, horrela, hegaztien migrazioaren «ikerketak baketsua» egingo dela azaldu zuten 1979an sortu zen taldeko partaideek.

Organbidexka hegaztien ikerketarako Europako gunerik garrantzitsuenetakoa da, eta lehena miru gorriari eta usoari —txolomak zein pagausoak edo usapalak— dagokienez.

Europa osoko segimendu zehatz eta sakonena egiten da bertan, eta ohizko migrazioaldi batean 300.000 uso eta 35.000 harrapakari inguru ikusten ahal dira. Lindux eta Lizarretan biltzen diren datuekin batera, 180 he-

gazti mota sailkatu eta ikertu ahal izan dira.

Ikerketa lanaz gain, dibulgazioa ere sakontzen dute taldekoek, eta urtero zortzi mila pertsona inguruk bisitatzen dute Organbidexka, eta 10.000k Lizarreta. Hala ere, asmoa ez da hor bukatzen. Ekologistek diotenez, ehiza postuen bidez egiten den harrapaketa ez da batera ohiturazkoa, 1961ean soilik 20.000 libera biltzen baitzituen Zuberoako sindikatuak. Gaur egun ehun aldiz gehiago jasotzen du. Hala ere, Organbidexkako kaskoa soilik 500 metro direla diote, eta Pirinioetan ehizarako erabiltzen direnak 200 kilometro inguru dira. Ondorioz, bigilantzia oso urria da, eta ingurugiroak kalte ugariak jasan ditu azken urteotan, baita egin diren pistengatik eta hegazti mota babestuen kontra egin diren erasoengatik ere.

$$2 + 2 = n$$

● Letretan ikasia izanik, ez naiz gauza 'n' hizkia matematiketan zer zenbaki klase den zehaztasunez adierazteko. Baina bai baitakit, erdaraz hezitua, negatiboaren inisialtzat har daitekeela (no, nunca, nadie, nada...), ahaleginduko naiz 2+2 batuketatik emaitza 'enea' ateratzen —neutroa? nuloa?—. Positiboa balitz, hainbat hobe, hitzen bidez burutuko badut ere.

BAT— 'Los violentos' izenekoak direla eta, Estatuko komunikabideek erakusten duten adostasun ia erabatekoak ematen du zer pentsa. Batetik harritzekoa da, bertetik trinkotzekoa. Egitez zalan-zagarri, ustez zalan-zagarria. Harridurak zalan-zak areagotzen, alde batean. Harri kokorak amiltzen omen dira etengabe, harkaitzak zutik dirauen arren. Sendo ala kolokan ezin zehaztu.

BI— Ikuspuntu orokortuarekin oraindik bat ez datorrena, amildegi gero eta sakonago baten aurrean dago. Halare, honezkeru sobera sakon eta kezkarria. Baliteke oker izatea, eta honaino oker iritsi izanak betiko makalduko lioke erizpidea, konparaziorako, auzitegi baten aurrean.

HIRU— 'Poder' hitza topikoak makalduta dago. Beraz, hobe erraten badut ikuspuntu orokortua boterearena ez, baik ordenarena dela. Izan ere, topikoak oraindik ere izugarri indartzen baitu 'orden' hitza.

LAU— Tira, ordenaren ikuspuntua bere egiten ez duenak dagoeneko ez du aukera propiorik, hau da, ez du oker izateko eskubiderik bere erara, bere erizpidearen arabera. Ez du zuzenbiderik ordenera tolestu gabe —salbuespenak albuespen?—.

BOST— Bat daramat, biolentoen munduari itsikeria mentala aurpegiatzen zaio. Eta inobilismoa, denborekin —pluralean— batera eboluzionatzeko borondaterik falta. Baina itsukeria horiek

egiazkoak izan edo ez izan, orden horren begietan daude, ezinbertzez. Bereiztu dezakeen bilakaera bakarra 'ordenatzea' baita.

SEI— Ezinbertzez erran berri dut, baina ordenak badu aukera franko. Ordena alda daiteke desordenatu gabe. Zuzen eta oker izan daiteke inori arrazoi osoa kendu emateke. Azken finean, ordena bera,

bere arrazoia eta bere indarra

—singularran?—

etengabeko egokitze baten ondorioz litzateke,

eta ez bazkaldugabea bazkalondora gonbidatzeko abiapuntua.

ZAZPI— Orden topikoak, berriz, bere gainetik kentzen ditu bai aukeratzeko erantzunkizuna, bai erantzunkizunaren aukera. Biolentoen aurrean bere berean mantendu eta erreprimitu bertze erreprimitorik —bertze erantzunkizunik— ez du. Errepresioaren kalte eta ezbeharrak ere biolentoei leporatuko dizkie, NAFARROA OINAZEZ, Arrazoiaren poderioz.

ZAZPI T'ERDI— Irudi bat erabiltzearen, bankak '7 y medio' karta jokuan bezala jokatu du. Gaintu behar ditu, hil ala bizi, jokalaria 'plantatuen' apostuak. Jokalaria ohien apostu galduak bereganatu, metatu eta kitto.

ZORTZI— Guztira, entelekia, batuketa bikoiztua —neutroa? nuloa?—. Orden zapaltzaile bat, hondakinen gainean eraikia, baina hondakinez, iraultzaile ez bezala. Eta hondakin ugaltzaile, birziklatzailearen kontrara. Zabalitzen baita zapalduz, haunditzen baita txikituz, SOÑANDO CON LA PAZ Haimdenburg. Borobiltzen baita kua-drutuz —sofistikoki, demagogikoki, martzialki—.



Angel Garcia Etxandi Idazlea







Nafarroako Banakako Txapelketa-ko Hirugarren ihardunaldiko partidak, 1994ko otsailaren 5ean jokatu.

Pedro Viñal, 2.250 ELOkoa (Anaitasuna)—Carlos Fernandez De la Hoz (Casco Viejo).

1.d4,Zf6; 2.Ag5,Ze4; 3.Ah4,g5; 4.f3,h4; 5.e4. Benetan, ateraldi bixia. Txurientzat, erdigunea. Beltzentzat, zutabe irekia, eta peoi bat zintzilik. Txurien onerako ote? 5...e6; 6.Zf3,c5; 7.e3,Db6; 8.Ad3. Estrategia jokoa ari dira egiten. Txuriek damari gonbitea egin diote sartzeko, garapenari ekin dioten bitartean. Beltzek ez dute arretarik jartzen gazteluko peoiaren defentsan, beste asmoak baitituzte. 8...d4; 9.d4,Zc6; 10.0-0,Gg8; 11.Eh1,Zd4; 12.bZ-d2. Txuriek eraso daukate, eta mugimenduak ez galtzeari garrantzia eman dioten. 12...Zf3; 13.Df3,Gg7; 14.Zc4,Dc7; 15.e5,Dc6; 16.Dh3,b5; 17.Zd2,Dc5; 18.Ae4,Gb8; 19.Zf3,Ae7; 20.aGe1,Gb6; 21.Ge2,d5; 22.Ad3,Ga6; 23.a3,Ga4; 24.c3,aG-g4; 25.Zd4,a6; 26.eG-f2,Gd4.

Zerbait saiatzeko egin dute, nahiko itota baitaude. 27.d4,Dd4; 28.Ge2,Ab7; 29.Df3,Da7; 30.Gc1,Ad8; 31.Dh5,Dd4; 32.Ah7. Galera garrantzitsua, zuloak sortzen dituelako. 32...Df4; 33.cGe1,Aa5; 34.b4,Ab6; 35.A4. 'Dh8 xa' jokaldkiak gaztelua harrapatuko luke. 35...Gg8; 36.Af3,a5; 37.Dh7,Ef8; 38.Gf1,d4; 39.eG-f2,d3. Ikus koadroa. Txuriek posizioaren nagusitasuna baliatuko dute partida erraz borobiltzeko, zaila badirudi ere. 40.Dd3,Af2; 41.Ab7,Gg6; 42.De2,b4; 43.b4,Db4; 44.Df2,Dc3; 45.Df7 xa ma. Azken unean, partida joana zegoenean, beltzek konzentrazioa galdu zuten.


## Bonifacio Manzanedo, Berako 'suizida mantsoa'

Rafael Alberti 'Sobre los Angeles' izeneko poema liburu bat dauka. Surrealismoa zeneko garaikoa da, eta ulertzeak lanak ematen ditu. Albertiren baitan aingeruek eta deabruak borrokatzen omen dute, eta ez metaforikoki, baizik eta benetan. Liburu hori idatzi zuenean krisialdi bortitza ezagutu zuen bere buruak. Liburu horretako Nobela izeneko poema batek Beran jazotako gertakizun bat dauka mintzagai, eta gertakizun horrek bere gogoan sortu duen ezinegona. Funtsean, bere arimaren ajustiziateta konta-

tzen du. Bere kasuan ajustiziateta hori irudimezkoa izanik ere, gogora ekartzen duena egiatan gertatu zen Beran. Bestalde esan behar da Rafael Alberti garai hartan anarkismoarekin bat zetorrela. Berandua, 1931. urtean Espainiako Alderdi Komunistan sartuko da. Hau dio poema horren ahalpaldi batek: 'Ilargiak 24 zitueneko gau hartan,/nire gogoan ajustiziatu zuen,/Azaroaren suizida mantso bati nire gelan/atzendutako lanbro batek'. C. Brian Morrisk segidako oharra jarri zion: 'Albertiri era-

## Sekretu krudela

Urunean ikusten da etxea. Hain handia, bere keinu goratiarekin eta bere dorronekin zerurantz seinalatzen dutelarik han hartzemateko desioarekin. Aurrekaldea, harrizko bloke handi batzuk goroldio beso baten azpian izkutaturik, hor dago, geldi baina aiduru. Landareek behatzen zaituzte beren mila begi itsuekin. Zer izkutatuko du bere baitan harri masa honek? Neurrigabeko atea. Landutako egurrez egina, bere barruan



Maider Eseberri

(BARAÑAIN)

rraren gainean. Argiak, leiho handi batek sartzen delarik, eszena guztia argitzen du argitasun handiz. Sorbaldan sastada bat, birika zeharkatzen eta bihotzeraino iristen da, heriotz bat iragartzen du. Bai, berandu iritsi dira. Gelan beste hilotz bat aurkitu dute. Aurpegi zuriko gazte bat. Bere ondoan pote txiki bat dago eta bertan artseniko hautsak ikus zitezkeen, buru hiltzea iragartzen. Maitasunak zeregin txarrak egiten ditu. Detektibea eta sarjentua elkari begiratu diote ikaraturik. Inoiz ez zuten pentsatu gaztea hori egi-



ixten du bere egia. Konturatu zara etxe honen gorakeriak jakinnahi desinteresatu bati aurre eman diola. Zergatik? Etxea konturatu da bertan sartuko zarela. Bere sekretua aurkituko duzu eta badirudi horrek ikaritzen duela. Zer da? Atea zeharkatzen duzu eta zure begien aurrean ondo apainduriko atalondo bat agertzen da. Tapiz sakratu bat, urrezko argimutilak aintzinako eta garesti diren altzairuen gainean, lanpara astun bat zintzilik eta

makina bat koadrok zure adimena deitzen dute.

—Sarjentua, berandu gatozela susmatzen dut.

Detektibea, gortina batez apainduta dagoen ate ireki batera hurbiltzen da. Gela barrurantz seinalatzen du eta bere begiek, finkaturik puntu batean, sentimendu arraro bat adierazten dute. Sarjentua hurbiltzen da eta... bai, hor dago.

Odolezko putzu bat marmolezko lu-

tera iritsiko zenik.

Behin komisaldegian egon eta gero kasua artxibatu zen galdutzat emanaz. Ez ziren behar zen garaian iritsi. Gaztea desesperaturik, bere maitearen ukapenagatik beste pertsona batengan sentitzen zuen lehentasunagatik, bere bizitzarekin bukatzea erabaki zuen eta neskarenarekin ere.

Etxeak sekretu krudel bat gordetzen zuen.

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak zure atean joka

Bonifacio Manzanedok moztutako zangoaren zaurioihalak kendu zituen, eta irekitako zauritik odolostu zen.

gin diote munduko gertakizunek; esate baterako, Sacco eta Vanzetti anarkista iparamerikarrenak, zeinak 1927ko abuztuan ajustiziatu baitzituzten.

Azaroaren suizida mantsoa, berriz, espainiarra zen, Bonifacio Manzanedo. Talde sindikalista baten burua geneukan, eta Beran, Nafarroan, Guardia Zibilarekin izandako tiroketa batean larriki zauritu zuten. Azaroaren 14eko Heraldo de Madrid egunkarian irakur daitekeenez, zango bat moztu behar izan zioten. Handik gutxira, operazioa bukatutzat hartu zutenean, eta ohezko izarek erabat estaltzen zutelarik, inor kontura ez zedin, Bonifacio Manzanedok moztutako zan-

goaren zauri oihalak kendu zituen, eta irekitako zauritik odolostu zen, harik eta hil arte. Ez zen inor konturatu.

Hau da poema horren gainontzekoa: 'Ilargiak 24 zituen gau hartan/zimelduriko zeruko ostoa nire ohe gainean pausatuta ziren./Nire gogo inozoari hitzak ebatsi zizkieten./Libro batean ehortzi zuten gorpua, bere oinetan./Errege baten agindua zen./Ilargiak 24 zituen gau hartan./Hotzaren justiziazuhaitz bati eman zion airea./Itzalean, galdutako lerek/hasperenezko arrastoak hauteman zituzten./negar irentsiak./Haren itzalean gazteluetako isiltasuna entzun zitezkeen.





**Z**abaltza: «Aurten azken urteotako kalitate gorakadari eutsi diogu, eta, ene uste apalean, programazio mundiala osatu dugu».

turik errepikatuko ditugu, eta horrekin batera musika sartuko dugu».

Ohienez, kontrainformazioak garrantzi handia izanen du. «Aurtengo gaueko berri emankizuna indartzen saiatu gara, eta hala bitarteko tekniko nola giza baliabide gehiago lortu ditugu». Dena dela, bestelako gaiak ere euren tartetxoak izanen dute. «Aniztasuna da nagusi, kontrainformazioaren bidetik aldendu gabe, arestian irrati libreetan lekuri ez zuekateen saioak dauzkagu. Iaz bezala, besteak beste, futbola, esoterismoa, amodioa, humorea eta sexuari buruzko saioak dauzkagu». Dena dela —nola ez ba— ekologia, feminismoa, homosexualitatea, amnistia, intsumisioa, erreprezioa eta antzeko gaiak buruzko saioek hor darraite. «Oro har espezializazioa indartzen saiatu gara, saio bakoitzaren ardatz nagusia zehaztu nahi izan dugu».

Berrikuntzen artean euskara da aipagarriena. «Aurten orotara bost saio euskara hutsean izanen dira, eta beste asko elebidunak. Gorakada handia lortu dugu alor honetan». Programa euskaldun berrien artean Hiri Kronikak da aipagarriena. Horren barean Patxi Zabaleta, Gaizka Aranguren, Pili Yoldi eta sona handiko beste hainbat euskaldun izanen dira hizlari ostegun eguerdietan. Kultura ere nabarmen indartu da programazio berrian. «Kultur saio gehiago behar genituela uste genuen, eta antzerkia, literatura eta ipuin kontaketen inguruko saioak izanen ditugu».

**EGUZKI MULTI MEDIA**

Eguzki Irratiak azken bi urteotan bere mugak zabaltzeari ekin dio, eta irrati uhinetatik kanpo lanean hasi da. Iaztik martxan dira Eguzki Banaketak eta Eguzki Bideoak elkarteak. Lehendabizikoak musika, literatura, informazio eta komiki argitalpen alternatiboak hurbiltzen ditu Iruñera, eta horiek hiriburuko gaztetxean jartzen ditu salgai ostiral arratsaldetan. Bigarrenak, berriz, proiektore erraldoi baten bitartez bideo ekoizpen alternatiboak nahiz filme ezagunak pantailarazten ditu igande arratsaldetan gaztetxean. Elkarrekin honen helburua bideo-ekoizpen lanetan hastera da.

Halaber, irratiak hainbat kultur ekitaldi antolatzeari ekin dio. Arestian aipatu antzerki emanaldiaz gain, urte honen hasieran Zarama, EH Sukarra, Huajoloteak, Patagonia eta Egam elkartu zituzten kontzertu bakarrean. Heldu den urtarrilean oraindik ezusteko handiagoa emateko asmoa dute.

**T**elebista kateen artean ikasturte berriko programazioa aurkezteko gala berezia antolatzea ezinbesteko bilakatu den honetan, Eguzki Irratia ez da atzean geratu nahi izan. Navarria Plazako irrati libreak Nafarroako Antzerki Eskolan aurkeztuko du gaur gauean bere programazio berria, ikuskizun berezi eta guzti. Programazioaren aurkezpenaren gibeletik Louvier's antzerki taldea ariko da eszenatokian, irratiaren 13. urtebetetzearen atarian.

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Gutxigatik, ez dok hamahiru. Abenduaren 15ean, gaueko hamarretan, 13 urte beteko ditu Eguzki Irratiak. Hamahiru udazken bata bestearen atzetik igarotzen direlarik, gauzak nabarmen aldatu egiten dira. Gazteak heldu bilakatzen dira, eta helduak zahar. Eguzki Irratia denboraren poderioz heldutasuna lortu dutenon artean dago Joseba Zabaltza irratikidearen irudikoz. «Azken urteotan heldutasuna lortu dugu, eta ghetto-tik irten gara».

Hori guztia ospatzeko, Louvier's antzerki taldeak, Eguzki Irratiaren eskutik, 'Rizando las ondas' obra taularatuko du gaur eta bihar ilunabarreko zortzietan



## Gutxigatik, ez dok hamahiru

Nafarroako Antzerki Eskolan. Obraren aintzinako irratigintzara hurbilduko da talde gipuzkoarra. Taldekideen esanetan, «obraren helburua ez da erretrato zehatza egitea, baizik eta garai hartako irratiaren izpiritua isladatzea, gure estilo eta zoramenekin nahastuz, emaitza entretenigarria lortzeko».

Obraren bitartez, aurtengo ikasturteko programazioa aurkeztuko du irrati libre iruindarrak. Joseba Zabaltza programazio arduradunaren arabera, urte berriari gogoz eta goiti egingen dio aurre Eguzki Irratiak. «Gaztetxea husten saiatu zirenean irratiak paper garrantzitsua jokatu zuen, eta gauza bera gertatu da gartzelaratuak intsumituekin. Irratitik igortzen zaizkien agurrak garrantzi handikoak dira. Gertakizunok oraindik gehiago sendotu dute irratiak, eta gu-

**L**ouvier's: «Obraren helburua garai hartako irratiaren izpiritua isladatzea da, gure estilo eta zoramenekin nahastuz, emaitza entretenigarria lortzeko».

re gorakadari lagundu diete. Inoiz baino entzulego zabalagoa dugu, eta halaber, lehen guregana hurbiltzen ez zen jendea hurbildu da lan egiteko asmoz. Esaterako, jende nahiko heldua ari da esatari lanetan».

Aurtengo programazioari dagokionez ere kontent ageri zen Zabaltza. «Aurten, azken urteotako kalitate gorakadari eutsi diogu, eta, ene uste apalean, programazio mundiala osatu dugu». Navarria plazako irratiak egunero orotara hamabi ordu emitituko ditu zuzenean, eguerdiko ordu bata t'erdietatik goizeko ordu bata t'erdia arte. Dena dela, irrati libreetan ahotsa eguneko 24 orduetan zehar izanen da entzungai, Zabaltzak azaldu zenez. «Zuzenean emititzen ez dugunean jokaldi hobereen errepikapena egingen dugu, hau da, programa hobereen graba-



# «Manexek leku handia hartu zuen»

L.E. / DONAPALEU

Duela hamar urte zendu zen Manex Erdozaintzi-Etxart, idazle, poeta, pentsalari eta animatzaile aipatua. Bere obra bizirik da ezagutu dituen jende askorengan; horren oroitarazteko eta bultzatzeko 'Manex Gogoan' taldeak kantaldia eta

Donapaleuko Herriko Etxean, irailaren 23an, 60 lagun bildu ziren Manexez egin mahainguruan parte hartzeko. Lekukotasun ugariak gizonaren garrantzia, handituz doana azaldu zuten.

Beste bi ekitaldiek festaren neurria emango diote omenaldiari.

tsolari, kantariak giroturik. Gaitero, trikitilariak ere agertuko dira.

Jendeak bildu nahi zituenari omenaldi ederrenaren egitea da jendearen biltzea. Manexen gogo-bihotzek, elkartasun mugagabeak, behartari zuen maitasunak luzaz iraungo du herritarren eredu.

ingurunean kokatu da eta bere hartu-emanak izan ditu, elkarlanean ari izan da eta uste dut bere pertsona, bere karisma guziarekin inportante baldin bada, beharbada, guretzat azpimarratzekoa zen ere epoka horretan beste langile eta elkarrekin egin lana aipatu beharra zela. Ez bakarrik Manexen beraren aipatzea, berak ez zuen hori maiteko, iduritzen zait bere mundua eta egin duen lana aipatu behar dela.

**EGUNKARIA.**— Argi da une honetan bere oroitzapenak betetzen duela Donapaleu eta menturaz frantziskotarren etxea, Donapaleun...

**ITURRIOZ.**— Bai, Manexek leku handia du etxe honetan eta berari esker, etxe honek hartu du halako zabalera bat. Zabalik nahi dugu etxe hau. Elkarrekin egin da Donapaleun, fraile eta laikoaren artean, etxe honi zabalik atxikitzeke bai animazioen egiteko, bai ongi etorriaren egiteko eta etxe honek ukan dezan Euskal Herrian leku bat, hemengo harat honetetan, borroketan, lanetan eta festetan, guzietan. Iduritzen zaigu hori Manexek bizi izan duela eta horren biziartzten saiatzen gara gu ere, haren ondok.

**EGUNKARIA.**— Lehen omenaldi-ekitaldi batean, hitzari garrantzia eman zaio...

**ITURRIOZ.**— Manexek eremu handia zuen, talde anitzetan egin du lan eta hor ziren mahainguruan hura ezagutu duten batzuk. Hitzak hartu zuten zer lanetan, zeri buruz, zer asmorekin ziren garai hartan azaltzeko. Hor Manexek zer leku ukan duen agertu zuten. Nahi genuen hori agertu.

**EGUNKARIA.**— Azkenik, festa eta kantari toki emango zaio: Manexek kantua sortzen zuen nonbait?

**ITURRIOZ.**— Manexek, poeta gisa, kantua maite zuen. Poesia eta kantua elkarrekin egiten dira nonbait. Bada poesian kantua. Manexek lan bat egin zuen euskal musika eta taldeei buruz. Askotan bertsoaren eta kantuarren garrantzia aipatu zuen. Urriaren 14an, biak bat izanen dira.

## Xantxo Iturrioz

FRANTXISKOTARRA



SOSLAIA

### Omenaldiaren bihotza

Xantxo Iturrioz Donapaleuko frantziskotarren anaidiko aspaldiko partaidea da. 'Manex gogoan', Manex Erdozaintzi-Etxart zenaren ekitaldi oroigarri zenbaiten antolatzeke, joan zen apirilean sortu zen. Iturrioz talde horren bihotz dabil geroztik. Manex zenaren itzalaz mintzo zaigu, eta erran duenez, Donapaleuko frantziskotarren etxeak «berari esker» hartu zuen zabalpena. Halaber, Manexek lan egiteko zuen dohaina aipatu digu, eta talde orotan partaide sutsua zela azpimarratu. Musika biziki maite zuen, «poeta baitzen, eta poesia eta kantua elkarrekin egiten direlako, nonbait».



Manex Erdozaintziren omenaldiaren afitxa.

herri bazkaria antolatu ditu, urriaren 14 eta 16an.

Ostibarreko Ibarlan 1934an jaio zen Manex Erdozaintzi-Etxart duela hamar urte zendu zen, Donapaleuko frantziskotarren buru zelarik. Apaiz, idazle, poeta, pentsalari, elkarre kudeatzaile, euskal kulturazale eta bultzatzaile, Manexek ahaltsun asko agertu zituen bere bizi laburrean. Donapaleun, Xantxo Iturriozen inguruan 'Manex Gogoan' taldea sortu zen udaberrian eta udazken honetako ekitaldiak antolatu ditu.

Urriaren 14an, ostiral arratsez, frantziskotarren kaperan kantaldia antolatuko da. Honen berezitasuna izango da Manexen poemak direla kantatuko. Iparraldeko kantari ugari hartuko dute parte. Koldo Ameztok ekitaldia animatu eta zuzenduko du.

Igande eguerdiz, frantziskotarren etxeak duen kalostrape ederrean herri bazkaria antolatuko da. Hor Ostibarreko Antzerkia taldeak 'Herri honen erraietan' poema luzea antzeztuko du 11etan. Ondoren bazkaria iraganen da, ber-

Xantxo Iturrioz Donapaleuko frantziskotarren anaidiko aspaldiko partaidea da. 'Manex gogoan', Manex Erdozaintzi-Etxart zenaren ekitaldi oroigarri zenbaiten antolatzeke, joan zen apirilean sortu zen. Xantxo Iturrioz talde horren bihotz dabil geroztik. Manex zenaren itzalaz mintzo zaigu.

**EGUNKARIA.**— 'Manex gogoan' horrek zer bait gehiago erran nahi luke?

**XANTXO ITURRIOZ.**— Erran nahi du epoka baten aipatzea. Manex norbait izan da, bere

## NOSKIJATOR

